

# Gasteiz udalen buru kirol-eskaintzari dagokionez

Arabako hiriburuko gizarte-etxeek 860 kirol-ikastaro eskainiko dizkiete herritarrei, 90 modalitatetan. Denboraldia urriaren 1ean hasiko da, eta oraindik bada leku librerik hainbat jardueratan.



Ibaiondoko igerilekua

Denboraldi honetan, urritik uztailera bitartean, **22.666 plaza** eskainiko zaizkie Gasteizko herritarrei, aurreko denboraldian baino 531 gehiago. Guztira **860 ikastarok eta 90 jarduera motek** osatzen dute Gasteizko Udalak gizarte-etxeen sare osorako prestatu duen kirol-menuak, aurreko kanpainan baino 12 gehiagok. Hamaika zaparrada jausi da lehenengo gizarte-etxeak (Europa eta Iparralde) ireki zirenetik, 1989an. Gaur egun hamalau dira guztira, eta Gasteizko auzoetako bizilagunen erreferentzia bihurtu dira.

**Berritasun** hauek nabarmendu behar dira denboraldi berri-rako: pilates hastapenak, zirkuitu funtzionalak eta HIIT. Kirol zinegotzi Ana López de Uraldek azpimarratu duenez,

“kirola osasuna da, eta herritarren ongizatea handitzen laguntzen digu. Kirol-jardueren helburua da bizitza fisikoki eta mentalki aktiboa sustatzea eta erraztea da, kirolaren bidez”.



Padela

Eskaintzak adin-tarte guztiak barne hartzen ditu, baita familientzako jarduerak ere. Gainera, jarraipena eman zaio desgaitasunen bat duten 6 eta 13 urte bitarteko haurrei laguntza pertsonala emateko programari, zeina 2023an sortu baitzen. Era berean, euskaraz ematen diren kirol-ikastaroen eskaintza sendotzeko konpromisoari heldu zaio, eta handitu egin da programazio elebiduna.



**Aratz Mugika**

“Gizarte-etxeen ohiko erabiltzailea naiz. Squashean eman dut izena, baina padelean ere aritzen naiz, eta igerilekua maiz erabiltzen dut. Ibaiondo eta Hegoaldera joan ohi naiz, baita Mendizorrotzeko kirol esparrura eta Gamarrako instalazioetara ere”.



**Ana Ansotegi**

“Urte asko daramat hainbat ikastaro egiten. Normalean, Hegoaldeko igeriketa-ikastarotara joaten naiz. Eskaintza zabala da, eta horrek beti aktibo egoteko aukera ematen dit”.



**Hugo Matías**

“Gustu ororentzako ikastaroak eta jarduerak daude. Igeriketatik hasita, hainbat igerileku baitago instalazio ezberdinetan, era guztietako kiroletara, baita haurrentzat ere. Sasoia lantzeko ikastaroetan eman ohi dut izena. Judimendi, Ibaiondo eta Salburukoak dira nire gizarte-etxe gogokoenak”.

## Uztaileko eta iraileko udako ikastaroen arrakasta

Gizarte-etxeek eta udal igerilekuek ez dute atsedean hartu udan, uztailean eta irailean 370 ikastaro eskaini baitira. Guztira, 6.762 plaza eskaini dira 14 eta 99 urte bitarteko pertsonentzat. Hainbat motatakoak izan dira: luzatze-ikastaroak, mantentze-gimnasia, hondartza-boleia, tenisa, padela, tonifikaziorako jarduerak aerobikoa eta musikala, aquazirkuitua, eta ipurmasailak, abdominalak eta zangoak lantzekoa, besteak beste.



Zabalganeko musika-jarduera

Jarduera horiek irailean amaitzearekin bat, denboraldiko ikastaroak hasiko dira, urrian.

Oporretan Arabako hiriburuan geratzea erabaki dutenek asmatu egin dute kirol-jarduera bat aukeratzeko edo beste batzuk probatzeko aukeraz baliatuz, eta herritar askok ez dute zalantzarik datorren urtean errepikatuko dutela.



**Beatriz Cabeza (31 urte)**

“Beti aukeratzen dut kirol-jardueraren bat denboraldian zehar, eta aktibo egotea gustatzen zaidanez, udan ere Zabalganeko musika-jarduera aukeratzen dut, etxetik gertu baitut. Hartara, sasoiari eusten diot eta asko dibertitzen naiz”.



**Ana Santamaría (57 urte)**

“Uztailean zein irailean eman dut izena. Normalean aerobika egiten dut, duela 20 urtetik. Dantza eta ariketa konbinatzen dituen edozein ikastaro gustatzen zait. Uste dut oso eskaintza zabala dugula, baina aerobik klaseen eskaintza zabaltzeko eskatu nahiko nuke, jende askok egiten baitugu”.



**Soraya Tavárez (42 urte)**

“Udako ikastaroen eskaintza oso ondo dago Gasteizen geratzen garenontzat. Neuk yoga eta zumba egin ditut. Tonu fisiko eta mentalari eusteko asmoa nuen. Beharrezkoa da aktibo egotea eta ohitura osasungarriak izatea. Kirola nire bizitzaren parte da”.

Informazio gehiago: [Vitoria-Gasteizko Udalaren web-orria](#) - [Gizarte Etxeetako eta kirol instalazioetako jarduerak](#)